



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2019/11/06

Bilera zenbakia: 11

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan Udaletxean

Parte-hartzaileak: Nekane (guraso elkarte), Tere (jubilatua), Xabi (Arbelaitz), Maddi, Rosi, Nagore eta Nerea (teknikaria)

## LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Aurreko ekintzen balorazioa
2. Hurrengo ekintzak
3. Beste gai batzuk

### 1. Aurreko ekintzen balorazioa

**Banakako balorazio fitxa egingo da, baino hau aipatu da:**

Pintxopotea: Jende gutxiago, jarritakoa amaitu zen, herri giroa sortzen du, txosnan 300€ garbi atera.

Antzerkia: Jendea batu zen, formatu egokia, adin tarte ezberdina, ekintza polita pintxopoteari hasiera emateko.

Gau beltza: Jende asko bildu zen, giro polita, herri bizitza, afari merienda ederki.

Elkarteei ekintzen balorazio fitxa eta balantze ekonomikoa eskatuko zaie

### 2. Hurrengo ekintzak

Azaroa	<b>8,22:</b> Talo ikastaroa <b>9:</b> Gaztaina jana <b>15:</b> Hitzaldi mikologikoa eta dastatzea <b>16:</b> Irteera perretxikota eta bazkaria <b>22:</b> Kantu afaria <b>23:</b> Auzolana haur txokoan <b>30:</b> Talo festa
Abendua	<b>3:</b> Euskararen eguna <b>24:</b> Olentzero eta Mari domingi <b>31:</b> San silvestrea

- 16ko bazkariako eta kantu afariko tiketak jarriko dira ia.
- Talo janerako bolondresak behar dira, wasap bidez bilatuko dira.
- Ikerri galdetuko diogu 22ko kantu afarirako jendea behar den.
- Euskara egunerako ( azaroak 30ean egingo da) , tribial moduko bat egitea aurreikusteen da, aste honetan lan taldea bilduko da eta zehaztuko dute. Proposamen modura, banderolak hartu eta banakako argazkiak atera daitezke gero argazki muntaia bat egiteko...
- Haur txokoko auzolanerako gutuna bidaliko da etxeetara.
- San silvestreko karrerako Aiorarekin egongo gara.

### 3. Beste gai batzuk

Liburutegiko kortina eta toloak jartzea eskatu da.

Hezetasuna dela eta frontoi komunaren obrak etb egin arte, proposatu da beste txokora eramatea. Auzolana, abenduak 13, 17:00

Ikurriñak berri behar dira, Xabik galdetuko du aurrekoak nondik ekarri ziren.

<b>ETXEKO LANAK</b>	<b>NORK</b>	<b>NOIZKO</b>
Talo janeko erosketak	Rosi	Azaroak 7
Tiket txartelak	Nerea	Azaroak 8rako
Ekintzen memoria elkarteei	Nerea	Urte amaierako
Euskara egunekoa zehaztu	Maddi	Azaroak 15erako
Aiorakin egon san silvestre	Nerea	Azaroak 15erako
Haur txoko gutunak	Nerea	Azaroak 18rako
Talo janerako bolondres wasapak	Nerea	Azaroak 8rako
Ikurriñak galdetu non erosi ziren	Xabi	Ahal den azkar
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<b>Hurrengo bilera : Urtarrilak 15, 19:00etan</b>		